



## **BETERRI ELKARTEKO ESTATUTOAK ETA ARAUTEGIAK** **PRINTZIPIO OROKORAK**

Beterri Elkarteak, gure lurra Euskal Herriko ohiturak eta tradizioak zabaldu eta lagunduko ditu, modu ezberdinetan: folklorea, euskara, kultura, e.a. Baita ere historikoki eta sozialki.

Beterrik bere helburuen artean, mota ezberdinetako aktibitateak antolatu eta babestuko ditu: kultura, kirola, gastronomia eta gizarte aktibitateak. Hala nola aisialdiko jarduera ezberdinak edo momentuan interesgarriak izan daitezkeen beste ekintzak.

Jarduera hauek Beterriko kideentzat edo edozein bizilagunentzat izan daitezke.

Elkarteko bazkidea izateko derrigorrezkoa da, urtean zehar antolatuko diren gauzen lanetan eta beharretan parte hartzea.

Beterri Elkarteak Erribera, Nafarroako eta gainerako Euskal Herriko kultur sare eta elkarte asoziatibo bezala, erakunde kultural eta sozialekin harreman eta kolaborazioa mantendu eta sustatuko ditu beharrezkoa ikusten denean.

## **ESTATUTUAK**

Ondoren zehazten diren estatutuak Elkartearen antolamendu eta funtzionamendurako gutxienezko puntuak dira.

### **1. Zuzendaria Batzordea**

Demokratikoki hautatutako 16 pertsonaz osaturik izango da. Bere garaian Batzordeak ezarritakoaren arabera banatuko dira eginkizunak.

16 pertsona hauek ondorengo komisioetan sartuko dira:

- a) Idazkaritza
- b) Finantzak
- c) Gazteria
- d) Txikiak
- e) Kultura, ospakizunak, kirolak
- f) Upategia
- g) Sukaldea
- h) Mantenua eta garbitasuna
- i) Komunikabideak

Batzorde guztiek, Zuzendaritza Batzordeari, antolatzen diren ekitaldi guztiei buruzko informazioa helaraziko diote.

Aurretik Zuzendaritza Batzordeak sortutako lan taldeetan, ardurarekin parte hartu nahi duten bazkide guztiek parte hartuko dute. Zuzendaritza Batzordea gutxienez hilean bi aldiz eta beharrezkoa den guztietan elkartuko da, elkartearen funtzionamenduaren jarraipena, bazkideena, lan egitasmoena, proiektu eta abarrena ahal den hobetoen egiteko. Elkartean sortzen diren eta interesgarriak diren edozein gairen eztabaida ere egingo da.

Zuzendaritza Batzorde hau betearazlea izango da, hau da batzorde batetik besterako tartean erabakiak har ditzake, batzarra deitzen denean egindakoari buruz informatuz.

Zuzendaritza Batzordea demokratikoki aukeratua izango da horretarako deitutako batzar nagusian.

Honen agintea bi urtekoa izango da eta urteko erdiak berrituko dira, boluntarioki aurkeztuko diren bazkideen artean. Batzordeko bileretara nahi duten bazkideak joan daitezke.

## **2. Batzar Nagusia**

Elkarteko batzar nagusia betearazlea izango da. Honek hitzarmenak egin eta baliogabetzeko ahalmena izango du.

Batzarrak, ohikoak nahiz ezohikoak izan daitezke. Ohikoak, Zuzendaritza Batzordeak hiru hilabetetik behin dei ditzake eta ezohikoak, Zuzendaritza Batzordeak beharrezkoa eta egokia ikusten duenean.

Bestalde, bazkideen ehuneko hogeiak eskatuta batzar nagusia dei daiteke, Zuzendaritza Batzordeari, idazki baten bidez arrazoiak eta ehuneko hogeia sinadurak azalduz.

Batzarrak bi deialdiren bidez egingo dira. Lehenengoa bertaratu diren bazkideen erdia gehi bat izango da. Bigarrena, lehenengo deialditik ordu erdia pasa ondoren, dauden bazkideekin egingo da.

Ohiko batzarrak, gutxienez aste bat lehenago idatzi baten bidez deituko dira. Ezohikoak, lau egun lehenago deitu behar dira. Erabakiak ontzat hartuak izango dira gehiengo bakunak onartuz gero. Bigarren deialdian parte hartzen duen kide kopurua kontuan izan gabe.

## **3. Bazkide onarpena**

Barne Estatutua eta printzipio orokorrak, onartu, errespetatu eta babesten dituzten pertsona guztiak, gizon nahiz emakumeak, izan daitezke elkarteko bazkide. Beste betebeharrak bat kuota ekonomikoa ordaintzea da.

Bazkide berrien onarpena, Zuzendari Batzordeak bozketaz erabakiko du, emandako botoen gehiengo bakunaren bidez. Batzordeak nahiko bazkide dagoela ikusten duenean, sarrera berriak mugatuko ditu eta batzar nagusiari azalduko dio.

Bazkide berriak sartzeko proposamenak, idatziz Zuzendaritza Batzordeari aurkeztuko zaizkio eta honek bozketa baino bi aste lehenago, aurkeztu denaren argazkiarekin batera, proposamena iragarki taulan jarriko du. Zuzendaritza Batzordeak, bazkide berrien onarpenaren berri emango dio batzarrari.

Bestalde, edozein bazkidek, bazkide berriaren aldeko edo aurkako alegazioak aurkez ditzake. Alegazioak, idatziz, Zuzendaritza Batzordeari aurkeztuko zaizkio, bozketa egiterakoan batzorde kideek alegazioen berri izan dezaten.

Bazkide berrien onarpenean, adina, sexua, kolorea, e.a. dela eta ezingo da inor diskriminatu.

#### **4. Elkarteko bazkideen ardura: adiskide, sendi eta lagunei dagokionez**

Elkartekoa ez den edozein pertsona, bazkide batekin sartzera derrigortuta dago.

Elkarteko giltza, pertsonala eta inori utzi ezina da. Norbaitek, bazkidea ez den norbaiti giltza uzten badio ez du arautegia betetzen.

Nahiz eta bazkide batekin egon, bazkidea ez dena ezingo da barra barrura sartu.

Elkarteko bazkideak ez direnekin, dauden bazkideek, Elkartean dauden bitartean, gerta daikeenaren ardura izango dute.

Tuterako jaiak direnean, Gabonetan, Inauterietan, Elkartearen egunean edo beste edozein ospakizunetan, kultur arloko ospakizunetan, kirola, eta beste edozein ekintza erabakitzen denean, Elkartea irekita egongo da, aurretik barrako txandak eta beharrezkoak diren beste ardurak antolaturik egongo direlarik. Kasu hauetan Elkarteak, tabakoari buruz legeak dioena beteko du.

#### **5. Lokalen uztea**

Kultur ekitaldiak, entretenimenduzko ekitaldiak, eta abar aurrera eramateko edozein herri erakundek lokalak eskatuz gero, Beterri Elkarteak lokalak utziko ditu.

Lokalak uzteko dauden baldintzak, bere osotasunean errespetatuak eta beteak izan behar dute. Bestela, Zuzendaritza Batzordeak edozein erakunde edo pertsonari ez dizkio utziko lokalak.

- 1) Lokalen eskaera elkarteko bazkide batek sinatuta idatziz egingo da. Azken finean, sinatzen duen, bazkide hau izango guztiaren arduraduna. Idatzi honetan, bestalde, bertan zenbat jende egongo den, ze erabilpen egingo den, eta abar adierazi beharko da.
- 2) Eskaera hamabost egun lehenago egingo da, Zuzendaritza Batzordea elkartzen denean baietza edo ezetza erabaki ahal izateko. Bazkideek jakin dezaten eta aldeztu aurretik beraien

erabilpena antola dezaten, onartu ondoren, Batzordeak iragarki-taulan jarriko du. Lokalak gaizki uzten dituen elkarte eta pertsona arduradunari garbitasuneko faktura pasatuko zaio, eta ez ordaintzeak, lokala berriz ez uztea ekarriko luke.

- 3) Eskaera jende askorentzat izanez gero, elkarteak edo eskatzen duen pertsonak, beharrezkoak diren arduradunak eta lekuak antolatuko ditu: barra, jantokia, eta abar. Bazkide arduradunak upategia, beharrezkoak dituen tresnak, garbitasuna, eta abar ere antolatuko ditu
- 4) Lokalak erabili ondoren, Elkartea garbia geratuko da, dena txukunduta eta tresnak eta beste gauzak bakoitza bere tokian utziko dira.
- 5) Eskaera egiten duten erakunde edo pertsonak, olioak, edariak, eta abar elkartean hartu beharko dituzte. Elkarteak, argia, ura, berogailua, eta abarrek sortzen dituen gastuak ordaindu behar dituelako.
- 6) Elkarte barruan egiten den ekitaldiaren deialdi publikoetan eta elkartearen izenak agertu behar badu oharretan, idatzietan, propagandan, karteletan, irratietan, prentsan, e.a., Elkarteko Zuzendaritza Batzordearen baimena beharrezkoa da.

Aldi berean, ekitaldiak antolatu eta deialdi publikoa egin nahi dutenak, alderdi politikoak, koalizioak, hauteskunde taldeak eta sindikatuak badira ukatu egingo zaie.

## **6. Ordainketa moduen eta kuoten arautegia**

- 1) Bazkide berrientzat sarrera kuota 400 Eurokoa da, gehi 10 Euro sarrerako atearen giltzari dagokiona.  
Zuzendaritza Batzordeari eskatuz gero, horrela nahi duenari, ordaintzeko beharrezkoak diren erraztasunak emango zaizkio. Sarrerako dirua ordaintzeko gehienez 30 hilabeteko epea emango da.
- 2) Hilabeteko kuotak, ondoren agertzen den bezala daude:
  - a) 0 urtetik 14 urtera, urtean 8 Euro ordainduko da kuota
  - b) 14 urtetik 18 urtera, urtean 16 Euro ordainduko da kuota

- c) 18 urtetik aurrera eskubide guztiko bazkidea izatera pasatuko da eta kuota osoa ordainduko da, gaur egun hilean 12,02 Euro izanik
  - d) Ikasten ari diren ikasleak eta parotik ezer kobratu gabe dauden langabeak, hilean 3 Euroko kuota ordainduko dute
  - e) Bazkidea bera izango da, Zuzendaritza Batzordeari, aldaketak helarazteko arduraduna
- 3) Nafarroako KPIaren inguruan igoko da urtero kuota.
- 4) Bazkidea hil ezker, sarrerako kuotarik ordaindu gabe, bere emaztea edo senarra, bikotea edo seme-alabaren bat ere bazkide egin daiteke.

Bazkideak hiru hilabete ordaindu gabe pasaz gero, aurreikusi eta ados jarritako kasuetan izan ezik, ez duela elkarteko bazkide izaten jarraitu nahi ulertuko da eta automatikoki baja emango zaio.

## **7. PEÑA TXIKIA**

Nahi duten 18 urteetatik beherako bazkideen seme-alabaz osatuta egongo da. Elkarte txikiko bazkideen onarpena Zuzendaritza Batzordearen bidez egingo da.

Bazkideek 6.atalean jarrita dagoen kuota ordaindu beharko dute. Kuota hori txikien administraziorako izango da.

Txikien elkarte 5 laguneko batzordeaz osatua egongo da, Elkarteko bazkidez edo bazkideen bikotez. Horietatik gutxienez bat Zuzendaritza Batzordeko kidea izango da.

Batzorde hau hilean behin elkartuko da eta kuota kobratzeaz gain , beraien partaidetza bultzatuz txikiei zuzendutako ekintzak antolatzeaz ardurako da.

Batzorde honek, urtean zehar, antolatzen diren aktibitate, aurrekontu eta balorapenen berri emango dio Zuzendaritza Batzordeari.

Elkarte txikiko bazkideek, elkartean adin bakoitzerako jokoekin egokituta dagoen gelara sar daitezke. Zortzi urtetik gorakoentzat, txikietatik aparte beste leku bat egokituko da. Gela honetan zortzi urtetik beherako inor ezingo da sartu.

Elkartean beren seme-alabek egingo dutenaren ardura gurasoek izango dute, kasu bakoitzean jarrita dauden arauak betetzearen ardura ere bai.

Peña Txikian gutxienez bost urte bazkide izaten eta ordaintzen daramaten txikiek, 18 urtetik aurrera sarrerarako jarrita dagoen kuota ordaindu gabe, eskubide osoz Beterri Elkarte izatera pasako dira. Momentu horretan jarrita dagoen hileroko kuota ordainduz.

## **8. ZIGORRAK**

Barne estatu, printzipio orokorrak eta betebeharrak betetzen ez dituen bazkidea edo faltaren bat egiten duenari, Zuzendaritza Batzordeak zigorra jarriko dio. Zigortua denak Batzar Orokorrean helegitea aurkeztu dezake.

Zigorra ekonomikoa nahiz Beterrirako zenbait lan boluntario egitea izan daiteke.

## **9. ELKARTEAN PARTE HARTZEKO ARAUTEGIA**

Zuzendaritza Batzordeari, Beterri Elkarteko estatutuetan azpimarratzen diren helburuak lortzeko, urtean zehar antolatzen diren ekintzetan bazkideen lankidetzeta eta parte hartzea beharrezkoa dela iruditzen zaio. Horretarako ondorengo neurriak jarri dira:

1. Urtean zehar antolatzen diren ekintzetan lan txanda bat egitea, bazkide guztien eginbeharra da.
2. Bi urtetik sortzen diren komizioetan gomendagarria da.
3. Pertsona bakoitzaren posibilitate eta nahiago duen lanaren arabera Batzordeak txandak antolatuko ditu. Ahal duen edo ez, jarritako epean, Batzordeari jakinaraziko zaio, beste pertsona bat jarri ahal izateko.
4. Tuterako jaietan lan egiten duenari edo Tuteratik kanpora dagoenari, urtean zehar antolatzen diren beste aktibitateetan txanda egiteko, Batzordetik deituko zaio.
5. Justifikatu gabe urtean zehar zerbait egiten ez duenari 100 Euroko isuna jarriko zaio, bigarren aldiz egiten ez duenari 200 Eurokoa eta hurrengoan autokanporatu dela ulertuko da.

6. Gaixorik daudenek, ezin dutenek lanik egin eta kanpoan bizi direnek, ez dute lan txandarik egin behar, taberna jabetzan dutenek eta 60 urte baino zaharragoak direnek ere ez.

## **10. ELKARTEKO JANTOKI ETA SUKALDEA ERABILTZeko ARAUTEGIA**

Zuzendaritza Batzordeak erabilpen eta funtzionamendu ona izateko arauak ezarri behar direla ulertzen du. Horretarako ondorengo arauak derrigorrezkoak dira:

1. Horretarako jantokian dagoen orrian apuntatu behar da. Bi egun aurretik apuntatu beharko du eta apuntatzen ez den bazkideak, ezingo du erabili sukalde jantokia (berdina izango da Beterritik kanpora eramateko janaria prestatzeko). Lehentasuna, lehenago apuntatu denak izango du.
2. Jantokiko mahaien erabilpen handia denean, adibidez, inauteriak, urteberri- eguna, urtezahar-gaua, jaiak, e.a., mahaiak hartzerakoan gehienez, bazkideak ez direnak 10 izango dira eta jantokiaren gehiena batek ezingo du hartu, horrela nahi duten bazkideek erabili ahal izateko. Egoera berezietarako Zuzendaritza Batzordeari baimena eskatu behar zaio.
3. 50 pertsona edo gehiagok egon behar dutenean arduradunak izango diren bi bazkide egongo dira gutxienez. Beste erakunde edo beste norbaitek erabili nahi izanez gero, bi bazkideren izenak eman beharko ditu, bestela ez zaio baimenik emango. Beste kasu guztietarako 5. puntuan araututa dago.
4. Mahai bakoitzak zenbaki bat dauka eta eskaera egiterakoan, orrian garbi jarriko da, zenbat egongo diren, mahaien zenbakiak, labea edota plantxa erabiliko diren, e.a. Jarri behar da, hamaiketako, bazkaria edo afaria izango den, ontziak garbitu behar diren edo ez, eta garbitu behar badira garbitasuneko arduraduna jakinaren gainean jarri behar da ere.
5. Egoera berezietan, Zuzendaritza Batzordeak horrela erabaki badu, bazkideek ezingo dute jantokia erabili. Hau aldeztu aurretik erreserba orrian adieraziko da.
6. Gutun-azala dena garbi jarrita betetzea bazkidearen aldetik derrigorrezkoa da. Gutun-azalean dirua sartu eta ondoren taberna



barruan dagoen kutxa gotorrearantz sartu behar da. Ontziak garbitu behar izanez gero, dirua beste gutun-azalean sartuko da eta jantokian, koadroaren atzean dagoen kutxa gotorrearantz sartuko da. Gutun-azala ez bada betetzen arautegia urratuko da eta Zuzendaritza Batzordeak hartuko du behar den erabakia.

7. Sukalde eta jantokiaren erabilpenak, pertsona bakoitzeko, euro bateko kostua du.
8. Bazkideak, upategi eta sukaldeko gastuak, banku edo kutxaren bidez ordain ditzake. Hori egin ahal izateko, apuntatu, horretarako dagoen txartelean eta ondoren barrako kajoian dagoen kolorezko plastikozko gutun-azalean sartu eta kutxa gotorrearantz gorde.
9. Txikien urtebetetzetan izan ezik edo Batzorde edo sukaldeko arduradunaren baimen bereziarekin ez bada, kanpotik edariak ekartzea (olioa barne) debekatua dago. Kanpoko edariak erabiltzeko baimena ematen baldin bada, deskortzea botila bakoitzeko 0,60 Euro ordainduko da.
10. Janaria prestatu eta eramateko, sukalde erabiltzen duenak, zenbat mahaikide izango diren apuntatu behar du eta horren arabera ordaindu. Sukaldean lekua falta bada, jantokia erabiliko duten bazkideek lehentasuna izango dute.
11. Kamaratan edo sukaldean uzten den janaria, bigarren egunetik aurrera botako da. Erabili edo eraman behar ez dena zakarretara bota behar da.
12. Sukaldeko tresna asko falta izan dela ikusi denez, Zuzendaritza Batzordearen edo sukaldeko arduradunaren baimenarekin ez bada, Elkartetik ezer ateratzea debekatuta dago. Honek materialaren itzultzea egiaztatu eta erregistratuko du.
13. Erabilitako olioak, birziklatzeko dagoen edukiontzira botako da eta beira tabernan dagoen beiraren edukiontzira jaitsiko da. Mantala eta zapi zikinak sukaldeko apalategiaren azpian dagoen plastikozko edukiontzian utziko dira.
14. Sukaldeko eta barrako ontzi-garbigailuak erabiltzeko azalpenak jarraitu behar dira.

15. Ontziak utzi eta garbitasuneko arduradunak garbitzeko ondorengo jarraibideak bete behar dira:

- Ontziak janaririk eta edaririk gabe ordenatuta utzi eta platerak, edalontziak eta eltzeak uretan pasa.
- Eltzetan, zartaginetan edo labeko bandejetan erantsita dagoen janaria xaboi-urarekin utzi.
- Plantxa erabiltzen bada, zikina kendu eta garbia utzi behar da.
- Sukaldeko laneko gainazalak garbiak eta jasota utzi behar dira.
- Saiatu ahal den leku gehiena libre uzten, besteek erabili ahal izateko.
- Platerak eta edalontziak pilatuta eta ordenatuta utzi eta mahai-tresnak konketa azpian dagoen pertza gorrian jarri xaboi-urarekin. Konketak libre utzi behar dira.
- Hamaiketakoa, bazkaria edo merienda egiten bada, sukalde eta jantokiko lurra garbia utzi behar da eta dena baldintza onetan utzi, egun horretan besteek ongi erabili ahal izateko.

Tuteran, 2013ko apirilaren 6an